



3. AGIRIA

PROZEDURA IREKI SUPERSINPLIFIKATUAREN BIDEZKO LIZITAZIOA, SANEAMENDU LABORATEGIKO LAGINKETA-JARDUERARI LOTUTAKO LAGINAK BIDALI ETA JASOTZEKO MEZULARITZA-ZERBITZUA KONTRATATZEKO

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

1. XEDEA

Kontratu honen xedea da BBUPren Saneamendu Laborategiaren ohiko jarduerarako behar den mezularitza- eta paketeria-zerbitzua ematea, bereziki laginak eta beste bidalketa batzuk garraiatze aldera.

Prestazio horren barruan sartzen dira bai laginen ohiko garraioa, bai presako mezularitza-zerbitzua, kritikotasuna dela-eta ohiko ordutegietatik kanpo berehala jaso eta entregatu behar diren bidalketak egin ahal izateko.

Kontratua lote independente hauetan banatuko da:

- 1. lotea: Partzuergoko HUAen eta Saneamendu Laborategiaren artean (edo alderantziz) laginak jaso eta entregatzeko **tokiko mezularitza-zerbitzua**, programatutako zerbitzuak eta berehalako edo eskatutako zerbitzuak barne.
- 2. lotea: **Nazio-mailako mezularitza- eta paketeria-zerbitzua** Saneamendu Laborategiko gainerako bidalketetarako.

2. EGIN BEHARREKO ZERBITZUEN DESKRIBAPEN XEHATUA

Kontratuak zerbitzu hauek ditu:

1. lotea: Tokiko mezularitza

1. Lohiak egunero garraiatzeko zerbitzua Lamiarango HUAn

Lohi-laginak egunero kargatzean eta garraiatzean datza, 100 ml inguruko ontzietan, Lamiarango HUAtik Galindoko Saneamendu Laborategiraino.

Maiztasuna: Egunero zerbitzua ematea, astelehenetik ostiralera.

Eskakizunak: Garraioak laginaren egonkortasuna bermatuko beharko du eta laborategiak analisiak behar bezala egiteko zehazten dituen ordutegiak bete beharko ditu.

2. Gainezkatze-laginak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua

BBUPko HUAetako gainezkatze-puntuetan ur-laginak biltzea (bi litroko poteetan), garraiatzea eta saneamendu-laborategian entregatzea barne.



Zerbitzua Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko HUAen eta Saneamendu Laborategiaren artean emango da, Bizkaiko lurralde-eremuan.

Bilketa- eta entrega-puntuaren zerrenda handitu edo murriztu ahal izango da laginak hartzeko puntuak gehitzearen edo kentzearen arabera, BBUPren beharren eta jarraibideen arabera, eta horrek ez du kontratuaren xedea aldatzea ekarriko.

Maiztasuna: Eskariaren arabera, araztegiek (HUA) jakinarazitako gainezkatzeko-gertakariak baldintzatuta.

Eskakizunak: Garraioak laginaren egonkortasuna bermatuko beharko du eta laborategiak analisiak behar bezala egiteko zehazten dituen ordutegiak bete beharko ditu.

Sarearen malgutasuna: Zerbitzuaren barruan sartzen da laginak hartzeko gune berriak berehala irekitzea edo daudenak kentzea, BBUPren behar operatiboen arabera.

Lote2: Nazio-mailako mezularitza

1. Nazio-mailako mezularitza- eta garraio-zerbitzua

Laginak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua ematea BBUPren instalazioetatik edo instalazioetara, nazio-eremuan kokatutako laborategi edo zentroetara edo haietara, Partzuergoaren beharren arabera.

Bidalketa kritikoen kudeaketa: Premiazko bilketak edo entrega-epe laburrak behar dituzten bidalketak koordinatzea, lagin kimikoen edo biologikoen degradazioa saihesteko.

Zerbitzuaren zeharkako betebeharrak

Kontratistak zamaren segurtasuna eta indarrean dagoen garraio-araudia betetzen dela bermatuko duten ibilgailu egokiak aurkeztu beharko ditu.

Zerbitzuen jarraipen zehatza egingo da, aldian behin jarduera-txostenak bidalita. Halaber, laginak entregatzeko denboretan eragina izan dezakeen edozein gorabehera tekniko edo atzerapen jakinarazte aldera, berehalako komunikazio-kanala ezarriko da.

Adjudikazioduna laginak eta paketeak garraiatzeko zerbitzua gauzatzeaz arduratuko da, eta bidalketen osotasuna eta entrega-denborak zorrotz betetzen direla bermatuko du.

3. ZERBITZUAREN IRISMENA

Zerbitzuaren irismena hauek definitzen dute: jatorria-helmuga, lagin-bolumena eta -mota, bilketa-maiztasuna, bidalketa-kopurua eta gauzatzearen lurralde-eremua. Hurrengo taulan zerbitzuaren nondik norakoak laburbiltzen dira:



1. taula Mezularitzako urteko zerbitzuaren irismena

	ZERBITZU-MOTA	JATORRIA	HELMUGA	LAGIN-MOTA/FORMATUA	MAIZTASUNA	BIDALKETA	LURRALDE-EREMUA
1. LOTEA: TOKIKO MEZULARITZA	Lohi-laginak biltzea eta garraiatzea	Lamiarango HUA	Galindoko Saneamendu Laborategia	Lohi-laginak (100 ml inguru)	Egunero	144	Bizkaia
	Gainezkatze-laginak biltzea eta garraiatzea	BBUPko HUAen gainezkatze-puntuak*	Galindoko Saneamendu Laborategia	Ur-laginak (bi litroko poteak)	Aldakorra	300	Bizkaia
2. LOTEA: NAZIO-MAILAKO MEZULARITZA	Laginak biltzea eta garraiatzea	Galindoko Saneamendu Laborategia o Kanpoko zentroak.	Nazio-eremuko kanpoko zentroak edo laborategiak o Saneamendu Laborategia	Aldakorra	Aldakorra	12	Nazio-mailakoa

*BBUPko HUA: Bakio, Gorliz, Lemoiz, Mungia, Zierbena, Elorrio, Ibarrangelu, Markina, Urduña, Lekeitio eta Ondarroa.

Adierazitako maiztasunak eta bidalketa-kopurua **gutxi gorabeherakoak eta lotesleak** ez direnak dira, eta BBUPren beharren arabera alda daitezke, gutxieneko bolumenaren konpromisorik gabe eta emandako zerbitzuen kopurua aldatzeagatiko konpentsaziorako eskubiderik gabe.

Bidalketak jasotzeko puntuetan egin daitezkeen aldaketak enpresa adjudikaziodunari jakinaraziko zaizkio, eta enpresa adjudikaziodunak adierazitako helbide berrietan jaso beharko ditu.

Bilketaren kostua bidalketetarako eskaintzan sartuta egongo da.

4. BIDALKETAK JASOTZEKO JARRAITU BEHARREKO OINARRIZKO PROZEDURA

Tokiko mezularitzako bidalketak eskaeraren egunean bertan izapidetu beharko dira, eta nazio-mailakoa, berriz, gehienez 24 orduko epean.

Gorabeheraren bat gertatuz gero (hartzailea ez egotea, helbide okerra, etab.), enpresa adjudikaziodunak laborategiari jakinarazi beharko dio berehala (entregatzen saiatu eta ordubete geroago gehienez), jarraibideak jaso ahal izateko.

Enpresa adjudikaziodunak premiazko garraioaren modalitatea bermatu beharko du, eta modalitate hori Saneamendu Laborategiak eskatuta aktibatuko da. Zerbitzu horretarako, tokiko eremurako entregatzeko gehieneko denbora ezin izango da bi edo lau ordu baino gehiagokoa izan abisua jasotzen denetik, programatutako ohiko ibilbideak edozein direla ere, eta nazio-mailan, entrega "24 orduko



zerbitzua" modalitatean bermatuko da (entrega 10:00ak baino lehen edo hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen, hala eskatzen denean).

Adjudikaziodunak egindako bidalketekin batera emate-agiria aurkeztu beharko da, eta hura Saneamendu Laborategian aurkeztuko da. Dokumentu horrek hauek jaso beharko ditu: bezeroaren izena, kontratua-zenbakia, bezero-zenbakia, IFZ eta data.

5. KONTRATUA DEUSEZTATZEA

BBUPk uste badu kontratua ez dela betetzen ari, idatziz jakinaraziko dio enpresa adjudikaziodunari, egoera zuzentzeko hartu beharreko neurriak har ditzan. Zuzendu ezean, BBUPk berriro jakinaraziko du, eta ohartaraziko dio kontratua deuseztatzeko aukera duela, administrazio baldintzen pleguan araututakoaren arabera.

Galindon, 2026ko apirilaren 27an

Kontratuaren arduraduna

Sin.: Francisco Javier Hernani Zabalo

Laborategiko zuzendariordea

Sin.: Elena Aspichueta Lopez